

EKINTZAK

ZER'en zenbaki onetan irakurleak aurkitzen dauz Lino Akesolo'ri Dima'n egindako omenaldian izan ziran berbaldiak, baiña egun orretan izan ziran ekiñaldi guztien barria emon bear dogu orain, labur-labur, egilleor adiskidearen bideari jarraituz.

Goizeko amaiketan alkartu giñan Dima'ko eleiza ederrean eta bertan Txanburu dan Egiguren'dar Agustín lekaide sakramentiñuak egokiro gertatu eban eleizkizuna. Lino bera izan zan meza-emoillean buru eta ogei ta bi abade izan ebazan inguruan. Zenbaki onetan aurkituko dau irakurleak mezako berbaldia. Erri-otoitza Liño'k berak zuzendu eban bertso batzuk abestuz. Bertsolari lez Dima'ko seme dan Etxebarria'tar Faustino'k egin eban bere lana.



Aita Lino'ren jaiotetxean ipiñi dan oroitarrria.



Aita Lino'ren jaiotetxea: Mailladi gaiñean, teillatuplean oroitarrri ipiñi-barria.

Mezea amaitu zanean, eleizearen ondoko enparantzian Galdakano'ko Anda Mari dantza-taldean izan eban bere ekiñaldia eta Otxandio'ko eres-taldearen doiñu ederak entzuteko aukerea izan genduan.

Gero Udaletxeko liburutegira joan giñan jakintza-ekiñaldiari asierea emoteko.

Lenengo, Dima'ko Alkate dan Etxebarria jaunak egin eban aurkezpena berbaldi labur eta mamintsu baten bidez: Aita Lino'k erriko seme lez eta jakitun lez udaletxeko atea zabalik izango ebazala beti eta ezerean bear-izanean izatekotan, uste osoaz urreratu leitekela eskaria egitera esan eban.

Ondoren iru berbaldi labur izan ziran Lino'ren bizitza, aztertze-lanak eta idaz-lanak azaltzeko. Berbaldi oneik zenbaki onetan argitaratzen dauz ZER aldizkariak. Izlariak Aroztegi'tar Luis, Onaindia'tar Santi eta Etxebarria'tar Jose Mari izan ziran.

Berbaldiak amaitu ziranean, erriko alaba zan neska gazte batek Lino'ren idaz-lan bat irakurri eban, "Atxostetik Atxostera" idazpurua daroan lana, entzungarria benetan, Dima'ko barria zalako eta Lino'ren bizilekua-aren gaiñean dagoan atxaren esangurea agertzen ebalako. Bide batez zidargilleen barriak eta bogadea egiten erabilten zan autsaren barria eta olakoak emoten dauz.

Jakintza-ekiñaldia amaitzeko, Lino'k berak egin eban berba eta ba-dirala Dima'n omenaldia bear daben beste batzuk be esan eban, kondairan ospetsuak izan diran gizonak.

Urrengo ekiñaldia Lino'ren jaiotetxean izan zan.

Yurrebaso'tar Jose Benito Igorre'ko San Kristobal auzotik aurrera joan eta Garamendi etxeetan bizi dan irudigilleak gertatutako oroitarrri ederra ipiñi zan jaiotetxeko orman. Oroitarriak Lino'ren irudia dauko ezkerreko goi-aldean eta alboan onako idazki au:

AKESOLO'TAR LINO AITA KARMELDARRA
EMEN JAIO ZAN 1911-4-TAN
EUSKERA ZAINTEZAREN I'G0 LENDAKARIA



Omenaldia: Aita Lino, Puxana'tar Pedro Abade idazlea, Atutxa'tar Julio Osagillea.

AZTERTZAILEA TA IDAZLEA

Lenengo txistularien eta dantzari txikien ekiñaldi bat izan zan eta gero Igorre'ko Seme eta Bilbo'ko Aldundian Jakintza-Sailleko Idazkari dan Legarreta'tar Jose Manuel Jaunak oroitarria agertu eban, Aldundiko Zuzendariaren izenean eta Jakintzako Arduradun dan

Tomas Uribe-Etxebarria Jaunaren ordez.

Oroitarria agertu ondoren Solozabal'dar Paulin Olerkariak bere olerkia irakurri eban. ZER onetan irakurri leike nai dauanak olerki au. Beste olerkari bi izan ziran ekiñaldi onetan: Etxebarria'tar Faustino eta Puxana'tar Basilio.



Legarreta'tar Jose Manuel oroitarria agertzen. Ondoa Aita Lino, gorago alkate jauna, Paulin abade-olerkaria, ta Lino'ren senideak.



Omenaldian: Aita Lino, Olazar'tar Martin, Dima'ko alkatea eta Atutxa'tar Julio osagillea.

OMENALDIA

Egun gogoangarri onetan ekintza guztiai azkena emoteko, anai-arteko bazkaria izan genduan OBA'n bertan dan Goikoetxe jatetxean. Eun eta amalau izan giñan mai-kideak eta toki zoragarri aretan Iturrate'tar Rosario Etxeko-Andreak bazkari ederra gertatu euskun eta mai otseiñak egokiro aurkeztu eben bazkari ori.

Bazkal-ostean Alkate jaunak abestu ebazan bertso batzuk, Domingo Agirre'k ZER onetan agertzen diran beste batzuk eta Paulin'ek be bere ekiñaldia izan eban.

Egun ederra eta giro ederrean ospatu genduan ba Akesolo'tar Lino'ren omenez uztaillaren lenengo egunean.

OLAZAR'tar Martin'ek



Omenaldia: Aita Santi idazle ezaguna, "Urretxindorra"ren alabea dan enbeita'tar Edurne Aita Lino ta Aroztegi'tar Luis.